
OSASUN SAILAK ETA OSAKIDETZAK UDAL ESPARRURAKO EMANDAKO GOMENDIOAK. COVID-19 ADINEKOEN ETXE ETA KLUBETARAKO AZKEN INFORMAZIOA

Osasun Sailak gomendatzen du aldi baterako udalen esku dauden adinekoen etxe eta klub gisa ezagutzen diren bilguneak ixtea (jolas-jardueretarako erabiltzen direnak), Euskadi osoan.

Euskadin gertatu diren Koronabirus –COVID19– infekzio-kasuen ondorioz eta infekzio-kopuruak gora egingo duela aurreikusita, Osasun Sailak eta Osakidetza gomendio hauek hedatu nahi ditu, udal esparruan abian jartzeko ekintzen proposamen modura.

ZERGATIK DIRA BEHARREZKOAK GOMENDIO HAUEK?

Udalerrien eta udal zerbitzuak artatzen dituzten pertsona eta profesionalen ekintza-espazioa hurbiltasunezko espaziotzat har daiteke, segurtasunari, gizarte-prestazioei, kulturari eta kirolari lotutako ekintzetan herritarrekiko duten hurbiltasunagatik. Ikuspuntu horretatik, alor horietan zerbitzua ematen duten profesionalek kutsadura-bektore izateko arriskua dute amankomunean, baita kutsatuak izateko arriskua ere bereziki. Ohar horietaz gain, kontuan izan behar ditugu udalerrien tamaina, aukerak eta baliabideak, horien kokapenaren –landa-eremua edo hiri-eremua– arabera eta dimentsio demografikoaren arabera.

Erantzunak ematen dituen ikuspegi baten beharra justifikatzen dute kontu horiek, udal esparruko kolektibo profesionalak eta, oro har, herritarrak babesteko xedez.

ZELAN ERAGITEN DU KORONABIRUSAK?

Koronabirusak gripearen birusen oso antzeko profila dauka alderdi askotan (transmisioa, gaixotze-heriotza). Erikortasuna duten adinekoak udaleko etxeko arreta-zerbitzuen edo kultur-eta gizarte-zerbitzuen erabiltzaileak dira askotan, eta haiek dute arriskurik handiena infektatzen badira. Hori dela eta, oso garrantzitsua da adinekoei babesa ematen dieten oinarritzko kolektiboak ere babestea.

ARRISKU-ESPAZIOAK GUTXITZEA

Eremu askotan kutsatzeko arriskua gutxitzera bideratutako intentsitate handiko neurriak hartu dira, batez ere Gasteizen, hala nola, ikastetxeetan eta gizarte, kultur eta kirol arloko guneeetan. Baina Gasteiztik kanpo ere, gaixotasunaren ondorioek gehien kaltetzen dituzten herritarrak, hau da, adinekoak, gutxiago kutsatu daitezten ekintza gehiago egitea erabaki da. Horregatik, hartutako neurrien maila handitu da eta adinekoen egoitzetan bideratu diren erabakiez gain, adinekoak elkartzen diren guneeetara ere prebentzio-neurriak zabaltzen hasi dira. Izan ere, adineko asko elkartzen dituen jarduerak (dantzetan, karta-jokoetan, bingoetan eta abarretan...) Osasun Sailak luzatutako eta leku guztietan hartzen ari diren arretazko neurriekin bateragaitzak bait dira. Horregatik guztiagatik Osasun Sailak udalen esku dauden **adinekoen etxe eta klubak (jolas-jardueretarako zuzendutakoak) aldi baterako ixtea gomendatu du**, Euskal Erkidego osoan.